

Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

UPV/EHU – Euskal Herriko Unibertsitatea

ariane.ensunza@ehu.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Onartze-data: 2013-12-30

Laburpena: Ikerketa honek erakutsi nahi du Euskara ez dela kasu isolatu bat munduan; bizirik dagoen hizkuntza denez, denboran zehar aldatzeaz gain, egunerokotasunean ere aldatzen ari da. Horretarako, Gernika-Lumon hitz egiten den euskararen aldaera aztertu da. Zehazkiago, aldakortasuna erakusten duten 6 hizkuntza aldagai aztertu dira eta hauek hainbat gizarte faktoreekin duten harremana ikertu da; hau da, adina, generoa, gurasoen jatorria eta ikasketa-zentroa. Aldagai independente garrantzitsuen adina da; izan ere, *helduenek* aldaera sabaikariak erabiltzen dituzte gehienbat, *tartekoek* biak erabiltzen dituzte eta *gazteek* gehienbat aldaera ez-sabaikariak. Belaunaldi gazteetan gertatutako aldaketa hauek erraz uler daitezke euskara batuaren eraginpean, ikasketa sisteman eta telekomunikabideetan erabat hedatuta baitago. • **Hitz-gakoak:** *dialektologia, soziolinguistika, hizkuntza aldakortasuna, bariazioa, aldaera, hizkuntza aldagaia, gizarte faktorea.*

Abstract: The aim of this contribution is to show that Basque is not an isolated case in the world; as a living language it has changed through time and it is, indeed, changing nowadays. Therefore, we have researched the variant of the basque spoken in Gernika. In fact, we have analyzed 6 linguistic variables which present variation taking into account some independent variables such as age, gender, origin of parents and the school where they have studied. The most important independent variable is age, as, *oldest* generation use mostly palatal variants, *adults* use both and *young* generations use generally not-palatalized variants. We believe that Unified Basque (promoted by Euskaltzaindia, the Academy of Basque, 1968), has a noticeable effect on the spoken language of the youngest generations, as it is widely present in the school system and the media. • **Key words:** *dialectology, sociolinguistics, language variation and change, variant, linguistic variable, social factor.*

1. SARRERA¹

I

Beti horrela pentsatu izan ez bada ere, gaur egun gauza jakina da hizkuntzak, eta berekin batera dialektok edota hizkerak, ez direla estatiokoak eta betierekoak, etengabeko aldaketan daudela baizik. Gainera, hizkuntza batek aldaketak jasatea egunerotasuneko beharrak asetzearen ondorioa baizik ez da eta hizkuntza bat ez bada aldatzen, oster, itzalita edo hilda dagoen seinale da. Hori dela eta, interesgarri bezain garrantzikoa da euskalkiak zein hizkerak beren aldakortasunean aztertzea. Testuinguru honetan kokatzen da honako lan hau.

Norbera ohartzen da bere herrian denek ez dutela berdin hitz egiten, helduek gazteek erabiltzen ez dituzten formak, ahoskerak, berbak zein esamoldeak erabiltzen dituztela, eta alderantziz, baina ezer gutxi dakigu aldakortasun honen inguruan. Gakoa aldakortasun horren ordena bilatzean dago, nahiz eta lan nekeza izan. Beraz, zerk eragiten du aldakortasun hori? Aldaketak talde jakin batean gertatzen dira ala esporadikoki? Lekukoak ohartuki ala oharkabean egiten ditu aldaketak? Ba ote dago generoaren arabera desberdintasunik? Eta ikasketa-zentroaren arabera? Gurasoen jatorriaren arabera?

Halaber, Trask & Millar-ek ([1996] 2007: 14) diotenez, ez dago aldakortasunaren zergatia azaltzeko erantzun sinplerik, aldaketaren arrazoiak asko eta anitzak direlako eta, gainera gaur egun horietako gutxi batzuk baino ez dira ondo ulertzen; modak, esate baterako. Nolanahi ere den, ezin dakioke modari egotzi aldakortasunaren erantzukizun guztia, jakina baita, Labovez geroztik, behintzat, aldaketa eragiten duten hainbat faktore daudela, bai hizkuntzaren barruko faktoreak, bai hizkuntzaz kanpokoak ere.

Orokorki, hiru mailatan azter daiteke aldakortasuna: maila diatopikoan, maila diastratikoan eta maila diafasikoan. Euskararen kasuan azken urteetara arte ohikoena ikerketak maila diatopikoan egitea izan da, beraz, herririk herri dagoen desberdintasunari erreparatu zaio, herri bakoitzean bertan dagokeen aldakortasunari bainoago (Aurrekoetxea 1995; Gaminde 1984a, 1984b, 1985a, 2003; Zuazo 1998, 2003, 2008; Camino 2003; Zelaieta 2008). Bestalde, herri zehatz bateko hizkera aztertu denean, ohikoena dialektologia tradizionalaren bidetik jotzea izan da eta, beraz, landa-eremuetako belaunaldi helduenen euskara aztertzeari ekin zaio (Ormaetxea 2002; Makazaga 2010). Era berean, euskararen aldakortasunaren inguruan egin diren ikerketa gehienetan ohikoa izan da, herrietako hizkerak deskribatzerakoan, hiztun komunitate osoa berdin mintzatuko balitz bezala tratatzea; hau da, herri bakoitzeko hizkeraren berri ematerakoan, forma

***Ez dago
aldakortasuna-
ren zergatia
azaltzeko
erantzun
sinplerik,
aldaketaren
arrazoiak asko
eta anitzak
direlako.***

**Helburu nagusia
gaur egungo
Gernika-Lumoko
hizkuntza-
aldakortasuna
aztertzea eta
honen berri
ematea baita.**

bakarra ematea izan da ohikoena. Gainerako hizkuntzetan, ostera, aspaldi xamar da alor honetan aurrerapauso nabarmenak eman direla.

Lan honen asmoa ez da, inolaz ere, orain arte egindako ikerketei garrantzia kentzea; aitzitik, beste hizkuntzetako aurrerapenak euskarara ekartzeko ahalegina egitea baizik; izan ere, hutsune edo zulo nabarmena dagoela sumatu da eta zulo hori beteko duen lur apur bat ekartzea izan da asmoa. Hala ere, aitortu behar da azken urteotan ugarituz joan direla gurean hizkeren aldakortasuna aztertzen duten ikerketak. Hortxe ditugu, besteak beste, EUDIA ikerketa-taldeak egindako lan ugariak (Aurrekoetxea (2003, 2008), Ormaetxea (2008, 2011), Ariztimuño (2010), Santazilia (2009), Unamuno (2010), Gaminde (2003, 2009, 2010a, 2010b), Gaminde & Zubillaga (2010), Gaminde & Romero (2011), Gaminde et al. (2012); eta bakarkako lan batzuk ere: Lujanbio (2011), Garmendia (2008), Amorrortu (2003).

Oro har, hizkuntzaren aldakortasunaren inguruan diharduten ikerketa soziolinguistikoak bi eratakoak izaten dira: batetik, aldakortasuna *in apparent time* ikertzen dutenak eta, bestetik, *in real time* ikertzen dutenak. Ikerketa hau *variation in apparent time* ereduari jarraikiz gauzatu da, helburu nagusia gaur egungo Gernika-Lumoko hizkuntza-aldakortasuna aztertzea eta honen berri ematea baita. Gernika-Lumo hautatu da, baldintza egokiak biltzen dituelako honelako ikerketa bat gauzatzeko. Batetik, herritarren %69,3 da euskalduna. Bestetik, herrian euskara egunerokotasunean erabiltzen da eta, beraz, euskal hiztun komunitate sendoa dauka. Hirugarren, inguruko herrietatik handienetakoa izateaz gain, indar sozio-ekonomiko eta kultural handia ere badu eta hori dela eta, Gernika-Lumok eskualdeko erdigune funtzioa betetzen du. Hala ere, euskaraz dakiten guztiek ez dute beti erabiltzen, gaztelerara jotzeko joera handia dagoelako. Bestalde euskararen erabilerari dagokionez alde nabarmena dago adin-taldearen artean: haurrak eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak; ondoren adinekoak daude eta euskara gutxien erabiltzen dutenak helduak dira. Ulergarria da kontuan izanik haur eta gazteek euskarazko hezkuntza jaso dutela txikitatik eta, beraz, erraztasunez erabiltzeaz gain euskararen kontrako aurreiritzirik gabekoak direla. Heldu eta adinekoek, ostera, hezkuntza gaztelaniaz jaso dute eta debekuz jositako euskal giroan bizi izan dira. Hori dela eta, euskararen kontrako jarrera edo iritziak oso hedatuta daude adin-talde hauetan eta euskara gutxiesteko joera ere nabarmena da.

2. METODOLOGIA ETA CORPUSA

I

Hizkuntza bere testuinguru sozialean ikertzen duten guztiek, arazo metodologiko klasikoarekin egiten dute topo: datuak jasotzeko erabilitako bideak jasotako datuak oztopatzen ditu (Labov [1997b] 1983: 75). Lekuko baten berbakeraren inguruko datuak jasotzeko erabiltzen den oinarritzko metodoa banakako grabaketarena da baina elkarrizketako berbakera nahiko formala izaten da eguneroko berbakerarekin konparatuta; izan ere, elkarrizketa behatzaile ezezagun batek kontrolatutako eta gidatutako diskurtsoa baita. Beste bide bat, lekukoa bere ingurune sozial naturalean aztertzea da (familiar, lagunartean) eta hirugarren bidea, elkarrizketatik kanpo hizkuntza bere erabilera publikoan behatzea litzateke, hiztunak behaketa esplizitutik kanpo hizkuntza erabiltzeko duen modua analizatzeko.

Ikerketa dialektologiko edota soziolinguistikoak egiteko modua ez da bat eta bakarra. Azken finean, ikertzaileak berak erabaki behar du, dauden aukeren artean, zein den egokiena, zeinek ahalbidetuko duen norbere helburuak ondoen betetzea. Gure kasuan, Gernika-Lumoko euskararen aldakortasun fonetikoaren erakusten duten 6 hizkuntza-aldagaitara lerratzeko erabakia hartu da eta aldakortasuna sistematikoki behatzeko itzulpen eta interpretazio bidezko galdetegia osatzea erabaki da. Alde batetik, elkarrizketa libreen arazoa saihestu nahi izan da; izan ere, elkarrizketa libre zein gidatuetan sarritan ez dira norberak nahi dituen gauzatze fonetikoak lortzen. Gisa honetako galdetegiekin, gainera, denboraren muga ere badute, hau da, lekukoarekin luzaz aritzea eskatzen dute eta, ondoren, grabazioan zehar aztergai diren aldagaien bila ibili beharra. Itzulpen bidezko galdetegiekin, osteraz, erantzunak zehatzak dira eta, gainera, beti dago aukera hiztunari momentuan galdetzeko berraztertzea esaten duen edo beste modu batera ere esango ote zukeen. Gainera, jasotako datuak konparagarriak dira beraien artean. Hala ere, lekukoa beretzat artifiziala den testuinguru batean ezartzeak eta ikeritzailearen presentziak berak ere, hiztuna eguneroko berbakeratik aldentzea ekar lezake (*behatzailearen paradoxaz* ik. Milroy 1980; Labov 1983).

Bestalde, galdetegia osatzerakoan kontuan izan dira ikerketaren muina diren aldagaien testuingurua, hala nola, aldagaia (posible den kasuetan) hitz hasieran, hitz amaieran eta hitz barruan aztertzeko aukera ematen duten hitzak bilatu dira eta, horrez gain, inguruko hotsak zeintzuk diren ere kontuan izan da, baita hitza euskararena den edota gaztelaniazko mailegua den ere.

Beste alde batetik, lekukoaren perfilak honako gizarte-faktoreak kontuan izanik hautatu dira: adina, generoa, gurasoen jatorria eta ikasketa

**Gure kasuan,
Gernika-Lumoko
euskararen
aldakortasun
fonetikoaren
erakusten duten
6 hizkuntza-
aldagaitara
lerratzeko
erabakia hartu
da eta
aldakortasuna
sistematikoki
behatzeko
itzulpen eta
interpretazio
bidezko
galdetegia
osatzea erabaki
da.**

***Ikerketa
honetarako
kontuan izan
diren gizarte-
faktoreak
honakoak dira:
adina, generoa,
ikasketa-zentroa
eta gurasoen
jatorria.
Lanbideari
dagokionez, ezin
izan da lagin
homogeneorik
lortu.***

lekua. Lekukoak ahalik eta anitzen izan daitezen ahalegina egin da. Beraz, ikerketa honetako datu eta ondorioak ez dira nekazari-abeltzainen edo langileen berbakerara soilik mugatzen, ezta Gernika-Lumoko biztanle zaharrenen berbakerara bakarrik ere. Aitzitik, gure corpusa 100 esaldi itzuli dituzten 63 lekukok osatzen dute.

Grabazio guztiak Olympus VN-2100PC ahots grabagailu digitalarekin grabatu dira. Ostean, audioak ordenagailura pasatu eta .wav formatura bihurtu behar izan dira, ondoren *Praat* programarekin (Boersma & Weenink 2009) zatitu eta analizatu ahal izateko. Gisa honetako programak erabilia, analisisa irizpide objektiboetan funtsatzen da eta, horrela, bere osotasunean balio objektiboa izango duen transkribaketak eskain daitezke. Datu guztiak datu basean sartu dira: erantzun guztiak fonetikoki transkribatu dira eta erantzun bakoitzari lema bat eman zaio, ondoren grafikoak ateratzea ahalbidetzeko. Guztira 5916 erregistro bildu diren arren ikerketa honetarako 4001 erantzun baliatu dira; izan ere jasotako corpusak azterketa ugari egiteko aukera ematen du, baina analisirako datuen hautaketa egin behar izan da, hobe baita aldakortasuna erakusten duten aldagai gutxi batzuk sakon aztertzea, aldagai asko azaltetik aztertzea baino.

2.1 Aldagaiak

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketek bi motatako aldagaiak hartzen dituzte kontuan: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte-faktoreak (Labov [1994] 1996: 33). Izan ere, gisa honetako ikerketen helburua aldakortasuna zein aldagairen arabera den zehaztea da.

2.1.1 Gizarte-faktoreak

Gizarte-faktoreak testuinguru sozialarekin lotutako aldagai ez-linguistikoak dira eta ikerketa batetik bestera aldatu egiten badira ere, Labovek ([1994] 2010: 2) zehazten duenez gizarte-faktore nagusiak sei hauek dira: generoa, adina, maila soziala edo lanbidea, etnia, arraza eta komunitatearen tamaina. Dena den, hiztun-komunitatearen ezaugarriak kontuan izan behar dira ikerketa bakoitzean zein gizarte-faktore den garrantzitsu eta zein ez zehazteko, ez baita gauza bera ingelesa edo euskara aztertzea, edota herri txiki bateko, herri handi bateko edo hiri bateko hizkera aztertzea. Esate baterako, Gernika-Lumo bezalako herri batean oraindik ez dira etnia edo arraza desberdinetako euskaldunak erraz aurkitzen eta, beraz, gizarte-faktore honek ez luke hizkuntza aldakortasunaren indize esanguratsurik erakutsiko.

Hori dela eta, ikerketa honetarako kontuan izan diren gizarte-faktoreak honakoak dira: adina, generoa, ikasketa-zentroa eta gurasoen jatorria. Lanbideari dagokionez, ezin izan da lagin homogeneousorik lortu, 1. adin-taldean ez baitugu goi-mailako lekuko euskaldunik aurkitu ezta 3. adin-taldean langilerik ere.

2.1.1.1 Adina

Ikerketa hau, ikuspuntu soziolinguistikotik egin denez, adin-talde guztietako hizkera batzen sailatu gara; izan ere, gizarte-faktoreei dagokienez, ikerketa honen ardatz nagusia den aldagaia da adina. Jakina da, bestalde, adineko lekukoak berbakera soilik aztertzean forma zaharrak jasotzen direla, ondoko belaunaldietan jada desagerturik daudenak eta, beraz, ez dute herriko eguneroko hizkeraren osotasuna islatzen.

Bestalde, gisa honetako atzerriko ikerketetan oso ohikoa da adinaren arabera banaketa egitea, alabaina adin-multzoak ez dira beti bat etortzen. Ikerketa honen helburuak kontuan izanik adin-taldeak bost multzotan bereizi dira, batez ere hiztunek euskara batuarekiko duten hurbiltasunean oinarrituta; izan ere, batetik, gaztelaniazko hezkuntza jaso zutenak eta euskara batuko hezkuntza jaso dutenak elkarrekin bizitzen daude gaur egun; eta bestetik, euskara batuaren sorrerak eta hezkuntzan erabiltzen hasteak eragin handia izan dute euskaldunen berbakera oso denbora-tarte txikian.

1. adin-taldea. 1950 urtea baino lehen jaioetakoak (60 urtetik gorakoak). Ez dute hizketa estandarra ezagutu ez bada telebista, irrati edo egunkarietatik eta aldaera zaharrak erabiltzen dituzte, aurreko garaian jarraipena direnak eta ondoko belaunaldietan aldatuta edo ahulduta daudenak.

2. adin-taldea. 1951-1964 urteen artean jaioetakoak (47-59 urte artekoak). Helduarotik zahartzarorako adin-taldea da eta heziketa gaztelaniaz jaso dute. Euskara etxean edota kalean ikasitakoa da eta batzuk gerora alfabetatu dira euskaraz, bai lan merkatuan hizkuntza estandarra erabiltzeko presioagatik, bai nahi pertsonalengatik.

3. adin-taldea. 1965-1980 urteen artean jaioetakoak (31-46 urte artekoak). Helduaroari dagokion adin-taldea da eta hezkuntza euskara batuan jasotzen lehenengoak izan dira. Mintzo estandarraren arauak dagokienez, gordetzailleago izatea egozten zaie.

4. adin-taldea. 1981-1990 urteen artean jaioetakoak (21-30 urte artekoak). Nerabezarotik helduarorako pasabidean daude. Bestalde, txikitatik teknologiaren garapena ezagutu duen lehenengo adin-

Ikerketa honen helburuak kontuan izanik adin-taldeak bost multzotan bereizi dira, batez ere hiztunek euskara batuarekiko duten hurbiltasunean oinarrituta.

**4. eta 5. adin-
taldeen kasuan
lekukoak
ikasketa-
zentroaren
arabera ere
banatu dira. Oro
har, Gernika-
Lumoko lagun
taldeak (edo
koadrilak)
ikasketa-
zentroen
araberakoak
izaten dira adin
hauetan, gerora
(ezkontzean, lan
bila joatean,
etab.) aldatu egin
badaitezke ere.**

taldea da eta antzinako gizartetik modernorako jauzia jasan duena. Aurrekoek bezala, euskara batuaren eragina izan dute txikitatik, bai eskolan, bai komunikabideen bidez.

5. adin-taldea (1991-2000). 1991-2000 urteen artean jaiotakoak (11-20 urte artekoak). Umea heldu bilakatzen hasten den unea da eta umeak lagunekin kalera guraso barik ateratzen hasteko momentua. Honek talde sena sortzea ahalbidetzen du eta berekin mintzo estilo baten eraiketa. Berebat sasoi honetan hasten da ume eta gurasoen arteko tarte zabaltzen eta mugak finkatzen. Hori dela eta, esan daiteke garai honetan hasten dela aldakortasuna hiztunarengan, umeak helduengandik bereizteko nahi horrek bultzatuta. Horrez gain, gaur egun talde hau osatzen duten gazteek euskara batuaren eragina izan dute txikitatik, bai eskolan, bai komunikabideetan eta, sarri, etxean ere.

2.1.1.2 Generoa

Gisa honetako ikerketa gehienetan ohikoa da gizarte-faktoreen artean generoa bereiztea. *A priori* ez dago jakiterik Gernika-Lumon generoaren arabera alderik dagoen, baina Gamindek (2010a) egindako ikerketa eta iradokizunek baieztatuaren aldeko zantzua erakusten dute.

2.1.1.3 Ikasketa-zentroa

Bestalde, 4. eta 5. adin-taldeen kasuan lekukoak ikasketa-zentroaren arabera ere banatu dira. Oro har, Gernika-Lumoko lagun taldeak (edo koadrilak) ikasketa-zentroen arabera izaten dira adin hauetan, gerora (ezkontzean, lan bila joatean, etab.) aldatu egin badaitezke ere. Hori dela eta, banaketa hau egiteak hizkuntza-aldaketa zehazki nondik datorkeen ikusten lagun dezakeela uste da.

Gernika-Lumon Lehen Hezkuntza eskaintzen duten 4 ikasketa-zentro daude: hiru ikastola pribatu eta eskola publiko bat. Ikastolen artean, Seber Altube (laikoa), San Fidel (erlijiosoa) eta Mertzedo (erlijiosoa) ditugu; eta, bestetik, herriko eskola publiko bakarra den Allende Salazar². Bertako ikasleek Gernika BHI-n jarraitzen dituzte Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasketak. Herrian Batxilergoko ikasketak eskaintzen dituen ikastetxe bakarra izanik berau, bertan batzen eta nahasten dira adin honetan herriko ikastetxe guztietako ikasleak. Bestalde, etorkin gehien seme-alabak Mertzedo joaten dira ikastera, jatorriz B eredua eskaintzen zuen bakarra zelako. Gernika BHI herri Institutuak eredu guztiak eskaintzen ditu, baina A eta B ereduak oso portzentaje txikia biltzen dute, ikasleen %94,78k D eredua jarraitzen baitu.

2.1.1.4 Lekukoaren gurasoen jatorria

Adin-talde guztien kasuan gurasoen jatorria ere aldagai gisa hartu da ikerketa honetan, baita gurasoek hitz egiten duten hizkuntza zein den ere. Izan ere, 1937ko bonbardaketaren ostean, inguruko herrietako biztanleek lagundu zuten Gernika-Lumoren birpopulaketan eta gaztelatik etorri zen jende kopurua ere handia izan zen. Bestetik, Gernika-Lumo merkataritza eta erdigune izateagatik inguruko herrietako jendeak bertarako joera izan du betidanik eta, horrek, inguruko herrietako hizkeren eragina egotea ekarri du eta, sarritan, inguruko herrietako jendea bertora bizitzen ere etorri da. Hori dela eta, oso gaitza da Gernika-Lumon bizi eta gurasoak Gernika-Lumokoak bertakoak dituzten lekukoak aurkitzea.

**Adin-talde
guztien kasuan
gurasoen jatorria
ere aldagai gisa
hartu da ikerketa
honetan, baita
gurasoek hitz
egiten duten
hizkuntza zein
den ere.**

2.1.2 Hizkuntza-aldagaiak

Hizkuntza-aldaketak eguneroko hizkeran gertatzen dira eta aldaketak, funtsean, bariazioarekin hasten dira; hau da, hiztunak gauza bera adierazteko aldaera bat baino gehiago erabiltzean (Campbell [1998] 2004: 219). Hizkuntza-aldagaia edo *linguistic variable* delakoa hizkuntza-unitate bat da, gauza berbera adierazteko aldaera bi edo gehiago dituen (Tagliamonte 2012: 15).

Hizkuntza askotan hotsei dagokienean aldakortasuna handiagoa izaten da bokaletan kontsonanteetan baino, orain arteko ikerketa garantzitsuenak hizkuntza germanikoetako bokalen ingurukoak izan baitira. Ikerketa honetan, ordea, aldakortasuna erakusten duten hizkuntza-aldagai erreparatzean kontsonanteen ebakieran ikusi da alde nabarmenena. Honako hauek izan dira hautatutako hizkuntza-aldagai independenteak: (iz) aldagaia, (it) aldagaia, (il) aldagaia, (ind) eta (ild) aldagaiak, (i_V) aldagaia, eta ('zait') aldagaia.

(iz) aldagaiari dagokionez, $i / Vj+ z/s \rightarrow ix / V(j)$ bilakabide fonetikoaren emaitzaren ondorioz Gernika-Lumon, beste hainbat hizkeretan bezala, entzun daitezkeen aldaera biak aztertu dira: [iʃ] (<ix>) eta [iʂ] (<is>). Aldagai hau aztertzeko erabili diren berbak honako hauek izan dira: *bizi, gizon, izen, izan, haize, aizkora* eta *eleiza*.

(it) aldagaiari dagokionez, $i / Vj+ t \rightarrow itt / V(j)tt$ bilakabide fonetikoaren emaitzaren ondorio gisa Gernika-Lumon entzun daitezkeen aldaerak aztertu dira: [c] (<tt>) herskari sabaikaria, [tʃ] (<tx>) afrikatu sabaiaurrekoa eta [tʂ] (<tz>) afrikatu hobikari lepokaria. Bestalde, gazteen artean palatalizatu gabeko aldaera ere entzun daiteke, [it], batez ere hitz amaieran. Horrez gain, batez ere lekuko gazteen kasuan ez [tʃ] (<tx>), ez [tʂ] (<tz>) den tarteko ebakera bat ere entzun daiteke:

**Honako hauek
izan dira
hautatutako
hizkuntza-
aldagai
independenteak:
(iz) aldagaia, (it)
aldagaia, (il)
aldagaia, (ind)
eta (ild)
aldagaiak, (i_V)
aldagaia, eta
(‘zait’) aldagaia.**

“/ts/ eta /t/ bereizketa galdu duten informatzaileen artean batzuek /t/ argia egiten dute eta euren ebakeretan argi agertzen dira hots honen indize akustikoak. Beste informatzaile batzuek /ts/ren aldeko hautua egin dute, baina ez dirudi ingurune guztietan ebakera bera egiten dutenik.

Honelakoetan ebakera zehatza zein den aztertzeo oraindik Euskal Herrian ez dauzkagun tresna batzuk beharko genituzke. Hala ere, eta hipotesi gisa, esan dezakegu bereizketa fonologikoa galtzean, lekuko horiek lehen banatuta zegoen espazioan orain osorik daukatela fonema afrikatu bakarra egiteko. Beraz, batzuetan ahoskuneak hurbilago egon daitezke /ts/ren espaziotik eta beste batzuetan /t/renetik.” (Gaminde eta lag 2012: 37)

(it) aldagaia aztertzeo erabili diren berbak honako hauek izan dira: *aitita, ito, polito, polita eta badakit*.

(il) aldagaiari dagokionez, $i / Vj / + l \rightarrow ill / V(j)ll$ bilakabide fonetikoaren emaitzaren ondorioz izan ditzakeen aldaera biak aztertu dira: [ʌ] albokari sabaiaurrekoa eta [ɶ] hurbilkaria. Ez da harritzekoa, bilakabide fonologiko bera gertatu baita gaztelaniaz eta, horren ondorioz, /ʌ/ fonemak ez dauka lekurik gazte gehienen inbentarioan. (il) aldagaia aztertzeo erabili diren berbak honako hauek izan dira: *hile/ hilabete, pila, ilun eta iluntasun*.

(ind) eta (ild) aldagaien kasuan, aldaera palatalizatua erabiltzen den ala ez aztertu da, beraz, aldagai bakoitzerako bi aldaera entzun daitezke: [ind] eta [ild] palatalizatu gabekoak; eta [inⁱɶ] eta [ilⁱɶ] palatalizatuak. Aldagaiok aztertzeo erabili diren berbak honako hauek izan dira: *ilda, eginda, indar, indaba, beldur, isildu, trankildu, hurbildu, egin dute, ipini ditut, egin du eta ezin dut*.

(i_V) aldagaiari dagokionez, jakina da mendebaleko euskalkian *i* bokala nahiz *Vj* bokalerdia *a*, *e*, edo *o* bokalaren aurretik doanean arau fonologiko bat gertatzen dela, bokal bien artean kontsonante epentetikoa tartekatzen duena. Kontsonante epentetiko horrek, aldaera bi ditu Gernika-Lumoko euskararen: ahostun sabaiaurrekoa [ʒ] eta ahoskabe apikaria [ʃ]. Kasu honetan, aldaera ahostuna ala ahoskabea erabiltzen den aztertu da, baita epentesirik ez tartekatzea ere. Aldagai gau aztertzeo erabili diren berbak hauek izan dira: *bixotza, indixabak, ogixe, eguskixe, mendixek, merixendie, armarixoa*.

(‘zait’) aldagaiaren kasuan ere gauza jakina da mendebaleko euskalkian bilakaera fonetiko berezia egon dela “NOR-NORI saileko adizkietan [‘zait’ gisakoak]; *y-* / *dx-* / *j-* aurkitzen ditugu mendebaletik ekialdera goazela; ez *z-* orokorra. [...] Ipar-mendebaleko hizkeretan, berriz, *d-* nagusitu da azkenaldian” (Zuazo 2008: 77-78). Gernika-Lumon bertan,

oro har, lau aldaera ditu: [ʒ], [dʒ], [ɟ], [d]. Bestalde [ɟ] eta [d] aldaerak erabiltzen dituzten hiztunek, hasierako kontsonante hori ez dute beti ahoskatzen ([ate] ‘zait’, [ako] ‘zaio’, etab.).

3. ANALISIA


I

3.1 Adina

Ikerketa honetako datuek erakusten dutenez hizkuntza-aldagai guztietan esanguratsuena den gizarte-faktorea adina da; izan ere, hizkuntza-aldagai denetan adin-taldean arabera desberdintasuna nahiko ondo definituta dago.

(iz) aldagaiari dagokionez, adin-talde gazteenetan ia erabat galduta dago 1. adin-taldean nagusi den [] aldaera sabaiaurrekoa [ʃ] aldaera ez-sabaikariak hartu baitu haren lekua. Despalatalizazio honen eraginez, helduek bixi, gixon, ixena, ixen, a(i)xe, a(i)xkora eta ele(i)xa esaten dituzte eta gazteek, oster, bisi, gison, isena, isen, aise, aiskora eta eleisa.

1. grafikoa: (iz) aldagaia adinaren arabera




(it) aldagaiari dagokionez, 1. eta 2. adin-taldeetan nagusi (%72 eta %80) den [c] herskari sabaikari ebakerak 3. adin-taldean beherakada nabarmena jasan du (%13) eta honen lekua [tʃ] afrikatu sabaiaurrekoak hartu du gehienbat (%67); izan ere, ebakera hau da ondoko adin-taldeetan (4. eta 5. adin-taldeetan) nagusitzen dena. Bestalde, [tʃ] ebakera hobikari lepokaria jada 2. adin-taldean agertzen zaigu (%6), baina 4. eta 5. adin-taldeetan aurkitzen da gehienbat (%18 eta %8). Horrez gain, ts gisa izendatu dugun [tʃ] eta [tʃ] tarteko afrikatu horren ebakera, 3. adin-tal-

Hizkuntza-aldagai guztietan esanguratsuena den gizarte-faktorea adina da; izan ere, hizkuntza-aldagai denetan adin-taldean arabera desberdintasuna nahiko ondo definituta dago.


dean agertzen zaigu lehenengoz (%15) eta nabarmen egiten du gora, batez ere, 5. adin-taldean (%37). (it) aldagaia hitz amaieran doanean aurki daitekeen aldaera ez-sabaikariari dagokionez —*it*—, jada lehenengo adin-taldean ageri zaigu (%3) eta honen erabilera gorantz doa adinean behera egin ahala (%6-%11). Beraz, hitz amaierako *-it* sabaikaritzeko joera galduz doa Gernika-Lumoko euskararen. Berebat, (it) aldagaiak Gernika-Lumon kontsonante afrikatuak neutralizatzen ari direla erakusten du; izan ere, helduek [c] ebakitzen dutena, ondoko adin-taldeetan [tʃ], [tʂ] zein bien tartekoa den hots afrikatua ahoskatzen dute. Horrela, bada, helduek [kortʃo], [atʂo], [aice] bereizten badituzte ere, gazteek guztiak ebakitzen dituzte berdin: [kortʂo], [atʂo], [aitʂitʂe]³. Beraz, heldu eta gazteen inbentario fonologikoak ez dira berdinak; izan ere helduek /tʃ/, /tʂ/ eta /c/ fonemak dituzte eta, gazteek, ostera, bakarra; dela /tʂ/, dela /tʃ/. Hori dela eta esan daiteke gazteen kasuan fonema hauek aldaera askean daudela. Gainera, aldaketa progresiboa dela dirudi, bereizketa egiten duten hiztunek ere [c] herskari sabaikaria ez baitute beste hizkera batzuetan bezain herskari ebakitzen, zarata gehiagorekin baino eta, beraz, afrikatuaren ebakerara gerturatzen da.

2. grafikoa: (it) aldagaia adinaren arabera




(il) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke 1. adin-taldean [ʌ] albokaria dela ebakera bakarra (%100); 2. adin-taldean ebakera nagusia (%96); eta 3. adin-taldean jada [ɿ] hurbilkaria nagusitzen dela (%73). 3. adin-taldetik aurrera, ebakera hurbilkaria da nagusi eta ia bakar (%98 eta %96). Beraz, helduek [iʎie] ‘hile’ eta [oʎe] ‘ohe’ bereizten dituzte, baina gazteek dena berdin egiten dute: [iɿie] ‘hile’ eta [oɿe] ‘ohe’.

3. grafikoa: (il) aldagaia adinaren arabera




(ind) eta (ild) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke adin-talde guztietan daudela bi aldaerak; hala ere, 1. 2. eta 3. adin-taldeetan, aldaera palatalizatua da nagusi (%50 baino gehiago) eta 5. adin-taldean, oster, ez-palatalizatua (%65). 4. adin-taldean aldaera palatalizatua (%52) eta ez-palatalizatua (%48) ia-ia parean daude. Dena dela, sakonago aztertuz, ikus daiteke euskara batuaren eraginez zabaldu dela aldaera ez-palatalizatua: [urbildu], [indar], [ĩşildu] eta [indaßak]. Bestalde, morfema mugak gainditzera ere ondoko hitzak bi silabatik gora baditu, aldaera ez sabaikaria nagusitzen da adinean behera egin ahala: [eindabe], [ipin-dotęş]; baina [en^jjew], [eşin^jot].

4. grafikoa: (ind) eta (ild) aldagaia adinaren arabera




(i_V) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke 1. eta 2. adin-taldeetan aldaera ahostuna bakarrik erabiltzen dela eta 3. adin-taldean hasten dela aldaera ahoskabea agertzen (%5). Ondorengo adin-taldeetan aldaera ahoskabea lekua hartuz doa, baina ahostunarekin oso parekatuta. Azkenik, 5. adin-taldean aldaera ahoskabearen maiztasuna (%43) ahostunarena (%41) baino altuagoa da. Beraz, helduek [biʒotʂa], [in^jʒiʒaβak], [oɣiʒe], [eɣuʂkiʒe], [menɟiʒek], [meriʒenɟie] eta [armariʒoa] esaten dituzte eta, gazteek, ostera, [biʒotʂa], [inɟiʒaβak], [oɣiʒe], [eɣuʂkiʒe], [menɟiʒek], [meriʒenɟie] eta [armariʒoa]. Bestalde, *i* edo *j* bere kide irristaria eta hurrengo bokalaren artean epentesia tartekatzeke arau fonologikoa galduz doa, batez ere hitz barruan eta gaztelaniako maileguetan. Beraz, gazteen artean oso ohikoa da honelakoak entzutea: [biotʂa], [inɟaβak], [oɣiʒe], [merjɛnɟie] eta [armajrue]. Hala ere, bokalez amaitzen den euskal hitz bati artikulua gehitzen zaionean, gazteek oraindik ere beti tartekatzen dute bokal bien artean epentesia: [menɟiʒe], [oɣiʒe] eta [eɣuʂkiʒe].

5. grafikoa: (i_V) aldagaia adinaren arabera



(‘zait’) aldagaiari dagokionez ikus daiteke [ɟ] aldaera adin-talde guztietan dagoela. Hala ere, 1. eta 2. adin-taldeetan [ʒ] aldaera da nagusi (%84 eta %72). 3. adin-taldean, ostera, [ɟ] aldaeraren erabilerak gora egiten du (%56) eta [ʒ] aldaerarenak behera (%34). Bestalde, 4. eta 5. adin-taldeetan [d] aldaerak presentzia handia hartzen du (%32 eta %19)⁴ eta kontsonantea ez ahoskatzeke joera ere nabarmenagoa da (%10 eta %12).

6. grafikoa: ('zait') aldagaia adinaren arabera



3.2 Generoa

Generoaren araberako sailkapena eginez gero, datuek erakusten dute Gernika-Lumon gehienetan gizonezkoak emakumeak baino gordetzai-leagoak direla.

(iz) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke 4 eta 5. adin-taldeetako gizonezkoek oraindik epentesiaren ebakera ahostuna mantentzen dutela (%5). (it) aldagaiari dagokionez, [c] ebakera 3. adin-taldeko emakumeengan jada ez zaigu ageri, ezta hurrengo adin-taldeetako emakumeen artean ere, baina gizonezkoen artean, oster, 3. adin-taldean oraindik entzuten da eta 4. adin-taldean eten bat dagoela dirudien arren, 5. adin-taldeko gizonezkoen artean berriro agertzen da. Era berean, (il) aldagaiari dagokionez, 4. eta 5. adin-taldeetako gizonezkoek oraindik [ʌ] aldaera albokaria erabiltzen dute (%5), baina 4. adin-taldeko andrazkoen artean forma bakarra da [ɹ] aldaera hurbilkaria (%100). ('zait') aldagaiekin ere gizonezkoak kontserbatzaileago ageri zaizkigu, [ʒ] aldaera 1. eta 2. adin-taldeetan ez eze, ondoko adin-taldeetako gizonezkoen artean oraindik erabiltzen baita, oso maiztasun txikiz bada ere eta, bestalde, 1. adin-taldeko gizonezkoek bakarrik erabiltzen dute [dʒ] aldaera [ʒ] kontsonante ozen baten ostean doanean.

Gizonak gordetzai-le agertzen bazaizkigu, emakumeak berritzaile: batetik, emakumeen artean (it) aldagaiaren aldaera kopurua gorantz doa adinean behera egin ahala; hau da, 1. adin-taldean [c] eta [tʃ] aldaerak daude; 3. adin-taldean [c] aldaera desagertu eta *ts* delako hori agertzen hasten da eta, azkenik, 4. eta 5. adin-taldean gainontzeko guz-

**Generoaren
araberako
sailkapena eginez
gero, datuek
erakusten dute
Gernika-Lumon
gehienetan
gizonezkoak
emakumeak
baino
gordetzaileagoak
direla.**


tiak ez eze, [tʂ] aldaera ere erabiltzen da. Bestalde, gizonak ez bezala, 1. adin-taldeko emakumeek [tʃ] aldaera ere oso maiztasun handiz erabiltzen dute. Azken aldaera honen erabilera izugarri hazten da 3. adin-taldeko emakumeengan. Horrez gain, ('zait') aldagaiari dagokionez 1. adin-talde honetan gizonak zein emakumeek darabilte [ʒ] aldaera, baina [j] emakumeek bakarrik. Eta, bestalde, [d] aldaera 4. adin-taldeko emakumeek gizonak baino maiztasun handiagoz erabiltzen dute. (il) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke 4. adin-taldeko emakumeen artean forma bakarra dela [j] aldaera hurbilkaria (%100); gizonak, oster, oraindik erabiltzen dute [ʎ] aldaera albokaria (%4), baita 5. adin-taldeko ere (%5). (ind) eta (ild) aldagaiari dagokionez ere ikus daiteke emakumeek aldaera ez-palatalizatua erabiltzeko joera nabarmena dutela (%52), gizonak gehiago erabiltzen baitute aldaera palatalizatua (%56). (i_V) aldagaiari dagokionez, emakume zein gizonak darabiltzate hiru aldaerak: ahostuna, ahoskabea, edota epentesirik gabekoa. Dena dela, emakumeek (%35) gizonak (%22) baino maiztasun handiagoz darabilte aldaera ahoskabea. Bestalde, 3. adin-taldeko emakumeak dira aldaera ahoskabearen motore (%7), hauengan agertzen baita lehenengoz; adin-talde horretako gizonak, oraindik, aldaera ahostuna soilik baliatzen dute. ('zait') aldagaiari dagokionez ikus daiteke ez dagoela alde nabarmenik gizon eta emakumeen artean, biek erabiltzen baitituzte aldaera guztiak eta, gainera, antzeko maiztasunez. Alde nabarmenena, [d] aldaeran legoke, emakumeek %20ko maiztasunez eta gizonak %11ko maiztasunez baitarabilte. Gainera, ondoko adin-taldeetako gizonengan oraindik erabiltzen da [ʒ] aldaera, oso maiztasun txikiz bada ere (%1). [d] aldaerari dagokionez, 4. adin-taldeko emakumeek (%22) gizonak (%0) baino maiztasun handiagoz erabiltzen dute eta 5. adin-taldean, parean daude biak.

3.3 Ikasketa zentroa eta gurasoen jatorria


Ikasketa-zentroaren arabera sailkapena eginez gero, datuek erakusten dute Gernika-Lumon gehienetan badagoela desberdintasuna zentro batetik bestera. Dena dela, ez dago ikasketa-zentro bat erabat berritzaile edo erabat gordetzaile denik; izan ere, aldagai batzuetan ikasketa-zentro batzuk berritzaile ageri dira eta gordetzaile beste batzuetan.

(iz) aldagaiari dagokionez, 4. eta 5. adin-taldeak Ikasketa-zentroaren arabera sailkatuz gero, ikus daiteke San Fidel eta Seber Altube ikastola pribatuetakoa emakumeek ez dutela aldaera sabaikaria erabiltzen. Gurasoen jatorriari erreparatuta, ikus daiteke ez dagoela alde nabarmenik guraso gernikarrak, ingurukoak edo erdaldunak dituztenen kasuan, baina badirudi inguruko herrietako guraso eus-kaldunak dituztenak direla aldaera sabaikariari gehien eutsi diotenak (%39).

7. grafikoa: (iz) aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera




8. grafikoa: (iz) aldagaia gurasoen jatorriaren arabera




(it) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke alde nabarmenena San Fidel eta gainontzeko ikasketa-zentroyen artean dagoela; izan ere, San Fiden ez da entzuten [c] (<tt>) aldaera. Gurasoen jatorriari erreparatuta, ikus daitekeen alde nabarmenena [c] (<tt>) ebakerari dagokiona da; izan ere, guraso erdalduna duten lekukoen artean ez da ebakera hau entzuten. Gainera, Mertzede ikastetxekoaren artean [c] (<tt>) ebakera darabiltenek guraso gernikarrak dituzte.

9. grafikoa: (it) aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera




10. grafikoa: (it) aldagaia gurasoen jatorriaren arabera




(il) aldagaiari dagokionez, ikus daiteke Allende Salazar eta Seber Altube direla gordetzailenak, [ʎ] aldaera albokaria hauetan bakarrik agertzen baita, nahiz eta maiztasun oso txikietan izan (%4 Seber, %8 Allende). Mertzede eta San Fidenen, oster, aldaera bakarra agertzen zaigu, [ɟ] hurbilkaria, beraz, berritzaileago ageri zaizkigu lehenago eman baitute amore aldaera berriaren aurrean. Gurasoen jatorriaren

araberako sailkapena eginez gero, alde esanguratsuen guraso erdaldunak eta euskaldunak dituztenen artean dagoela ikus daiteke; izan ere, denek erabiltzen dituzte bi aldaerak, bai albokaria, bai hurbilkaria, baina guraso erdaldunak dituztenek maiztasun handiagoz darabilte [ɟ] aldaera hurbilkaria (%96). Beraz, esan daiteke gurasoen hizkuntzak badiuela eragina, aldaera hurbilkaria hedatuago baitago gurasoetako bat erdalduna dutenengan. Gainera, honek gaztelaniaz gertatu den “yeísmo”-arekin izan dezake lotura eta, baliteke erdaldunen eraginez gertatu izana aldaketa hau gurean ere.

11. grafikoa: (il) aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera




12. grafikoa: (il) aldagaia gurasoen jatorriaren arabera




(ind) eta (ild) aldagaiei dagokienez, ikus daiteke San Fidel (%51) eta Seber Altube (%51) ikastoletakoak direla aldaera palatalizatua gehien erabiltzen dutenak. Aldaera ez-palatalizatua Mertzede (%66) eta Allende Salazarrekoen artean (%74) da nagusi. Bestalde, Mertzedeko emaku-

meengan dago aldaera ez-palatalizatua hedatuen (%81) eta San Fidel eta Seber Altubeko gizonak dira, oster, aldaera palatalizatua maizago erabiltzen dutenak. Horrez gain, Mertzedede eta San Fidelen kasuan badu zerikusirik gurasoak erdaldunak ala gernikarrak izatearekin; izan ere, bi ikastola hauetan aldaera ez-palatala gehien erabiltzen dutenak guraso erdaldunak dituztenak dira (%23 eta %27).

13. grafikoa: (ind) eta (ild) aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera




14. grafikoa: (ind) eta (ild) aldagaia gurasoen jatorriaren arabera



(i_V) aldagaiari dagokionez ikus daiteke, ikasketa-zentro guztietan agertzen direla hiru aldaerak, baina Allende Salazar eskola dela aldaera ahoskabearen erabilera altuenak erakusten dituen (%52). Gainontze-koetan aldaera ahostuna da nagusi; hala ere, aldaera ahoskabearen indizeak oso altuak dira. Bestalde, epentesi gabeko aldaera Allende Salazar (%17) eta Mertzedeen (%20) da nagusi. Gurasoen arabera banaketa eginez gero, ez da datu esanguratsurik antzematen.


15. grafikoa: (i_V) aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera



(‘zait’) aldagaiari dagokionez, ez dago batetik bestera desberdintasun esanguratsurik, ikasketa-zentro guztietan erabiltzen baitira aldaera guztiak eta, gainera, antzeko maiztasunez. Hala ere, Allende Salazar eta San Fidel ikastetxeetan ikusten da batez ere emakumeek erabiltzen dutela [d] aldagaia eta kontsonantea ez ahoskatzeko joera ere nabarmenagoa da hauengan. Mertzedeen, oster, gizonak dira [d] aldaera emakumeek baino gehiago erabiltzen dutenak. Gurasoen arabera banaketa eginez gero, berriz, ez da ondorio esanguratsurik ateratzen.

**3. adin-taldea
dela aldaketen
erdigunean
dagoena eta,
beraz, aldaera
gehien biltzen
dituena. Izan ere,
tarteko adin-
taldea da honako
hau, aldaera
zaharren eta
berrien arteko
zubi lana egiten
duena eta, beraz,
aldaera zaharrak
eta berriak
parekatuta
agertzen dira
normalean adin-
talde honetan.**

16. grafikoa: ('zait') aldagaia ikasketa-zentroaren eta generoaren arabera



4. ONDORIOAK

Ikerketa honen ekarpen nagusia euskararen aldakortasuna ikuspegi soziolinguistikotik lantzea izan da. Izan ere, atzerrian oso aurreratuta daude hizkuntza-aldakortasuna ikuspegi honetatik lantzen dituzten ikerketak, baina gurean oraindik oso urriak dira alor horretan diharduten lanak.

Gernika-Lumoko gaur egungo hizkuntza-aldakortasuna ikertu da lan honetan, aldakortasuna erakusten duten hizkuntza-aldagai jakin batzuk zein gizarte-faktoreren arabera gertatzen diren finkatu ahal izateko. Ikergai izan ditugun hizkuntza-aldagai guztietan esanguratsuena den gizarte-faktorea adina dela ikusi da; izan ere, hizkuntza-aldagai denetan adin-taldeen araberrako desberdintasuna nahiko ondo definituta agertu da. Datu hauetatik atera daitekeen ondorio nagusia da 3. adin-taldea dela aldaketen erdigunean dagoena eta, beraz, aldaera gehien biltzen dituen. Izan ere, tarteko adin-taldea da honako hau, aldaera zaharren eta berrien arteko zubi lana egiten duena eta, beraz, aldaera zaharrak eta berriak parekatuta agertzen dira normalean adin-talde honetan.

Bestalde, datuek erakutsi dute hizkuntza-aldagaien azterketan generoa ere gizarte-faktore garrantzitsua dela. Izan ere, Gernika-Lumon gehienetan gizonak emakumeak baino gordetzailagoak dira eta, beraz, emakumeak berritzaileago, hauek baitira berrikuntzak abian jartzen di-

tuztenak edo, behintzat, aldaera zaharren aurrean errazago amore ematen dutenak.

Gainera, Gernika-Lumon ikasketa-zentroaren arabera desberdintasuna ere badagoela esan daiteke, oro har, ikastola pribatuetakoak eskola publikoetakoak baino kontserbatzaileago ageri baitira. Dena dela, ez dago ikasketa-zentro bat erabat berritzaile edo erabat gordetzaile denik, aldagai batzuetan ikasketa-zentro batzuk berritzaile ageri baitira eta gordetzaile beste batzuetan.

Horrez gain, datuek erakusten dute hainbat aldagai despalatalizazio prozesuan daudela Gernika-Lumoko euskaran: (ind) eta (ild) aldagaiak, (iz) aldagaia eta (it) aldagaia. Hortik ondorioztatu daiteke, hizkera honetan *i* bokalak eta *j* bere kide irristariak ondoko hotsak sabaikaritzeko duen indarra galtzen ari dela belaunaldietan zehar. Aldaketa hau erraz uler daiteke euskara batuaren eraginpean. Berebat, Gernika-Lumon kontsonante afrikatuak neutralizatu egin dira; izan ere, helduek [c] ebakitzen dutena, ondoko adin-taldeetan [tʃ], [tʂ] zein [tʃ] eta [tʂ] tartekoa den hots afrikatua ahoskatzen dute. Beraz, heldu eta gazteen inbentario fonologikoak ez dira berdinak. Horrez gain, albokarietan ere gertatu da desfonologizazioa, helduek [ʎ] eta [ɟ] arteko bereizketa egiten baitute, baina gazteek ez.

Adin-talde gazteetan ikusi dugu euskara batuaren eraginak ere baduela zerikusirik; izan ere, (i_V) aldagaian epentesirik ez tartekatzea, (it) aldagaiaren aldaera ez-palatala (zein ez-afrikatua) erabiltzea eta (ind) eta (ild) aldagaiak ez sabaikaritzea, ondo uler daitezke estandarren eraginpean bada. Batetik, euskara batuan aldaera horiek ez daudelako eta, bestetik, heziketa euskara batuan jaso duten lekukoengan soilik agertzen direlako batura hurreratzen diren aldaerak.

Gauzak honela, eta Sturtevant-ek (1947: 8. kap.) hizkuntzaren aldaketan bereizitako hiru garaiak kontuan izanik, esan daiteke lan honetan aztergai izan diren hizkuntza-aldagaiak 2. garaian daudela; izan ere gizarte-faktoreen arabera bereizketa egiterakoan ikusi baita aztertutako hizkuntza-aldagai guztietan dagoela aldaera berri bat edo gehiago lehian aldaera zaharrekin. Hala ere, hizkuntza-aldagai hauetako batzuk 3. fasera hurreratzen ari direla dirudi eta, beraz, aldaera zaharra erabat ordezkatzeko bidean daudela.

5. ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

I

Ezinbestekoa da ikerketa batek etorkizunerako bide berriak zabaltzea. Esate baterako, etorkizunean ikerketa honen corpusa zabaltzea garrantzizkoa litzateke, datu homogeneoagoekin ondorio berberak ateratzen

**Gizonak
emakumeak
baino
gordetzaileagoak
dira eta, beraz,
emakumeak
berritzaileago,
hauek baitira
berrikuntzak
abian jartzen
dituztenak edo,
behintzat,
aldaera zaharren
aurrean errazago
amore ematen
dutenak.**

***Ikastola
pribatuetakoak
eskola
publikoetakoak
baino kontserba-
tzaileago ageri
baitira. Dena
dela, ez dago
ikasketa-zentro
bat erabat
berritzaile edo
erabat
gordetzaile
denik.***

diren jakiteko, esan baitugu lanean zehar, adineko jende asko ez dela prest agertu ikerketa honetan parte hartzeko, baina agian denbora gehiagorekin lortuko litzateke konbentzitzea. Bestalde, lekukoen homogeneotasun falta hori dela eta ezin izan dugu gizarte-faktoreen artean aurreikusita genuen “lanbidea” faktorea aztertu eta, beraz, maila sozialak erakuts dezakeen aldakortasuna ikertzeke geratu da.

Halaber, ikerketa honetan ikertzailearen hautuen arabera 6 hizkuntza-aldagai aztertu dira, baina datozen urteetan aldakortasuna erakusten duten beste hainbat aldagai hauta daitezke eta hauen azterketa sistematikoa egin; esate baterako, aditzaren nominalizazioa, gisa hone-tako esaldiak entzun baitaitezke Gernika-Lumoko gazteen ahotan: *astu ein jat arTU* ‘ahaztu egin zait harTZEa’, *super raroa eitzen jat Gerniken egon* ‘super raroa egiten zait Gernikan egoTEa’, *super karue da kopisie atara* ‘super karua da kopia ateraTZEa’, *gustetan daste morena egon* ‘gustatzen zait morena egoTEa’, etab. Pleonasmoen hedadura edo maiztasuna ere azter daitekeen beste ezaugarrietako bat da, adibidez, superlatibo-zko morfemarena: *LAR aurrerEI botaot kotxie* ‘(lar) aurrerEGI bota dut kotxea’, *horrek prakak LAR andiseISEk die nitzako* ‘praka horiek (lar) handiEGIAk dira niretza’¹. Beste aztergai bat bi formaren arteko fusioa zein maiztasunez gertatzen den izan daiteke, adibidez, *ba-* eta *-en* formen artekoa: *zu BAzoazEN ni bebai* ‘zu bazoaz, ni ere’, *estakit askenien batzarra eingo BAdaN* ‘ez dakit azkenean batzarra egingo den’.

Ondoko urteetarako beste erronketako bat izan daiteke denboratarte bat igaro ondoren, demagun 10 urte barru, Gernika-Lumoko euskararen inguruko ikerketa berbera errepikatzea. Honen bidez, ikerketa honetan agertu den hizkuntza-aldakortasuna denbora errealean (*real time*) ikertu ahalko litzateke eta, beraz, aldakortasuna denboran zehar gertatu den ala hiztunaren adin-faseen arabera gertatzen den ondorioztatu ahalko litzateke. Argi dagoena hizkuntzaren izaera aldakorra da eta ondoko azterketetan ikertzaileak hemen deskribatutako gauza asko jada ez ditu aurkituko Gernika-Lumoko euskaldunen berbakeran eta, era berean, ezaugarri berriekin egingo du topo eta erronka berriei egin beharko die aurre.

Era berean, uste dugu interesgarria bezain garrantzitsua dela edozein euskalki edo hizkeraren azterketa diakronikoa egitea, esan bezala, euskalkiak berak eta hizkerak produktu historikoak baitira, hau da, aztergai den hizkera aurreko egoera baten ondorio da (Mitxelena 1981: 518). Beraz, lan honetan aztertu dugun hizkuntza-egoera hobeto ulertzeko beharrezkoa da honen aurrekarien berri izatea, hau da, nondik datorren jakitea. Bide batez, edozein hizkera inguruko euskalkiekin el-

karreraginean aztertu beharko litzateke, ondoko herrietatik zein ezaugarri banatzen duten eta zein ezaugarri batzen dituen ondoko herrietara. Gisa honetako ikerketek denboran zehar isoglosek izandako mugimenduak erakusten dizkigute.

Baina, hizkuntza ez da soilik denboran zehar aldatzen, hiztun berberak era batera edo bestera hitz egin dezake dagoen testuingu-sozialaren arabera; hau da, hiztun bat ez da berdin mintzatzen gurasoekin edo lagunekin, ez da berdin jarduten ezagutzen duen pertsona batekin edo ezagutzen ez duen batekin, euskaraz ondo dakien batekin edo euskaldun berri batekin; hau da, hiztunak erregistro hautaketa egiten du bere solaskidearen arabera. Era berean, helburuen arabera ere hiztunak erregistro desberdinak erabiltzen ditu eta, beraz, ez da berdin mintzatzen solaskidea konbentzitu nahi badu, azalpen bat eman behar badu edo zerbait egiteko baimena eskatu behar badu, ezta bere egoera animikoaren arabera ere; hau da, nekatuta badago, haserre badago ala gogaituta badago, esaterako. Berebat, hiztuna ez da berdin mintzatzen tabernan, oharkabea, ala norbait grabatzen ari dela dakienean eta, are gutxiago, ikertzailea aurrean dagoenean eta honek prestatutako galdetegi hertsia bati erantzun behar dioenean. Hori dela eta uste dugu interesgarria litzatekeela oharkabeko solasaldietatik ateratako datuekin kontrastatzea ikerketa honetatik ateratako emaitzak. Bestalde, solaskidearen arabera, testuinguru sozialaren arabera edota egoera animikoaren arabera hiztunak erregistro desberdinak erabiltzen dituen ikertzea ere interesgarria litzateke. Beraz, badago egitekorik ondoko urteetan. ●

**Hainbat aldagai
despalatalizazio
prozesuan
daudela Gernika-
Lumoko
euskarari: (ind)
eta (ild)
aldagaiak, (iz)
aldagaia eta (it)
aldagaia.**

OHARRA

1. Ikerketa hau Eusko Jaurlaritzaren *Ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko laguntzen programa*-ri esker burutu da (kod. BFI-2010-253).
2. Horrez gain, Gernika-Lumoko herritar batzuek Arratzuko Barrutia eskola publikoan egiten dituzte beraien ikasketak, baina hauek gutxiengoa direnez, ikerketa honetan ez ditugu aintzat hartu.
3. Afrikatu horren izaera desberdina izan badaiteke ere.
4. 2. adin-taldearen kasua ez da aipatu, [d] aldaera darabilen lekukoa bakarra delako eta, gainera, Bermeon egiten du lan. Hortaz, Bermeoko hizkeraren eraginaren ondorio izan daitekeelakoan gaude.

ERANSKINA. LEKUKO EDO BERRIEMAILEAK

1. Adin-taldea: <1950: Francisco Javier Urrutxua Madariaga, Fernando Garate Zubizarreta, Rafa Sardui Gastañazatorre, Maria Pilar Lejarraga Landa, Maria Begoña Basabe Gomeza, Miren Begoña Eizagirre Lamikiz.

2. Adin-taldea: 1951-1964: Juan Felix Torrealdei Intxausti, Joseba Totorikaguena Lauzirika, Juan Cruz Zallo Bilbao, Alberto Alzibar Al-

**Esan daiteke lan
honetan aztergai
izan diren
hizkuntza-
aldagaiak 2.
garaian daudela;
izan ere gizarte-
faktoreen
araberako
bereizketa
egiterakoan ikusi
baita aztertutako
hizkuntza-
aldagai guztietan
dagoela aldaera
berri bat edo
gehiago lehian
aldaera
zaharrekin. Hala
ere, hizkuntza-
aldagai hauetako
batzuk 3.
faserantz
hurreratzen ari
direla dirudi eta,
beraz, aldaera
zaharra erabat
ordezkatzeko
bidean daudela.**

dana, Amagoia Lopez de Larrucea Zarate, Begoña Onaindia Larrinaga, Amaia Erekatxo Irazabal.

3. Adin-taldea: 1965-1980: Julen Ikazuriaga Arteatx, Xabier Irazabal Basabe, Ager Zallo Mintegia, Mari Tere Gandarias Astelarra, Leire Irazabal Basabe, Ruth Barrena Alonso, Adela Zallo Bilbao, Gotzone Aspiazu Totorikaguena, Oihane Anparan Malaxetxebarria, Ainhoa Artetxe Bilbao.

4. Adin-taldea: 1981-1990: Markel Urrutia Perez, Irati Urionaguena Onaindia, Naroa Idoiaga Erekatxo, Edorta Apraiz Eizagirre, Asier Musatadi Hidalgo, Adrian Perez González, Axut Bidaguren Mera, Amaia Badiola Elgezabal, Libe Etxeandia Mendieta, Itxaso Musatadi Hidalgo, Lorea Anparan Malaxetxebarria, Josu Zaldibargerrikagoitia Bilbao, Asier Ordorika Iturbe, Leire Gonzalez Enbeita, Teresa Velayos Gainza, Angela Urrutxua Obieta.

5. Adin-taldea: 1991-2000: Beñat Llona Moreno, Ander Arrien Aspiazu, Aritz Gorriño Izagirre, Gontzal Pujana Onaindia, Ramón Santos Gandarias, Leire Pereira Uriguen, Olatz Armaolea Martija, Peio Murrutagoiena Gondra, Iñigo Etxeandia Mendieta, Mikel Elgezabal Garmendia, Iratxe Bereziartua Gorrindo, German Velayos Gainza, Peru Antxon Urrutxua Obieta, Maite Urkiza Aranzabal, Maite Urrutxua Obieta, Igor Bernedo Calvo, Alain Agirre Pascual, Aitor Basterretxea Aldana, Mikel Andoni Mingo Abiña, Ane Iturriarte Basterretxea, Naroa Amezaga Belez, Joane Aberasturi Akaiturri, Carla González Pereira, Ainhoa Elejaga Jimeno.

BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, E., (2003). "Hizkuntza aldakortasuna eta identitatea". In Gaminde, Iñaki; Goikoetxea, Juan Luis; Sarriugarte, Iñaki (arg.). *Ahoz-kotasuna aztergai*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea, 157-167.
- Aurrekoetxea, G. (1995). *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. Leioa: UPV-EHUko Argitarapen Zerbitzua / Serie Tesis doctorales.
- (2008). "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskarari", *Euskalingua* 12, 17-26.
- Boersma, P. eta Weenink, D. (2009). *Praat: doing phonetics by computer* (Version 5.1) [Computer program]. Retrieved January 31, 2009, from <http://www.praat.org/>
- Camino, I. (2003). *Hego Nafarrera*, Iruña: Nafarroako Gobernua.
- (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Campbell, L. (1988). *Historical Linguistics: an Introduction*. Berrarg. [2004], Edinburgh: Edinburgh University Press, and Cambridge, MA: MIT Press.

- Eckert, P. (2000). *Linguistic variation as social practice*. Malden Mass: Blackwell.
- Gaminde, I. (1984a). *Aditza Bizkaieraz, I. Tomoa*, Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- , (1984b). *Aditza Bizkaieraz, II. Tomoa*, Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- (1985a). *Aditza Bizkaieraz, III. Tomoa*, Iruñea: Udako Euskal Unibertsitatea.
- (2003). “Mungialdeko herskarien eta afrikatuen txandaketaz”, *Euskalingua*-2: 10-17.
- (2009). “Hiztunen generoaren eta adinaren pertzepzioaz” *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 71., 151-164.
- (2010a). *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbao: Mendebalde Kultur Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.
- (2010b). “Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoez”, in Mendebalde Kultura Alkartea: Bilbon Mundua Ikusi, 35-59.
- Gaminde, I. & Romero, A. (2011). “Generoa eta adina Bermeoko berbal-diaren fonemen eta hotsen frekuentzian”, *FLV* 113: 115-138.
- Gaminde, I.; A. Romero, H. Legarra, (2012). *Gramatika eta hizkuntza barietazioa Bermeon*. Bermeo: Bermeoko Udala.
- Gaminde, I. & Zubillaga, H. (2010). “/t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran”, *Ikastorratza*-3: 1-9.
- Garmendia, L. (2008). “Hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskaran: ikuspegi soziolinguistikoa”. In: *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra, 2001*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1-2.
- Hualde, J. I. (2009). “Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano”, *Deustuko unibertsitatean aurkeztua, 2009ko ekainean*. Online: (https://netfiles.uiuc.edu/jihualde/www/objects/pubs/Hualde_Bqanalogy3.pdf)
- Labov, W. (1983). “The social motivation of a sound change”, *Word* 19: 273-309.
- (1994). *Principles of Linguistic change. Volume 1: Internal factors*, Berrarg. [2010], Oxford: Blackwell.
- (2001). *Principles of Linguistic change. Volume 2: Social factors*, Berrarg. [2010], Oxford: Blackwell.
- (2010). *Principles of Linguistic change. Volume 3: Cognitive and Cultural factors*, Oxford: Blackwell.
- Lass, R., (1980). *On Explaining Language Change*, Cambridge: Cambridge University Press.

- Lujanbio, O. (2011). *Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskarari, Eusko Ikaskuntza*.
- Makazaga, J. M. (2010). *Elgoibarko Ahozko Euskara*, IKER-25, Bilbo: Euskaltzaindia eta EHU-UPV.
- Milroy, J. (1992). *Linguistic Variation & Change*, Oxford: Blackwell.
- Milroy, L. (1980). *Language and Social Networks*, Berrarg. [1987], Oxford: Basil Blackwell.
- Milroy, L. & Gordon, M. (2003). *Sociolinguistics. Method and interpretation*, Oxford: Blackwell.
- Mitxelena, K., (1981). "Lengua común y dialectos vascos". *ASJU-15*, 289-313. Berrarg. [2011], in *ASJU. Luis Michelena. Obras Completas, VII*, Donostia eta Gasteiz: EHU.
- Oñederra, M. L. (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*, EHU: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Ormaetxea, J. L. (2002). *Aramaioko euskara*, Aramaioko Udala.
- (2008). "Otxandioko hizkera: adinaren araberrako bariazioa", *FLV* 108, 249-262.
- (2011). "Apparent time variation in basque: variation in Aramaio and Otxandio", *Dialectologia* 6
- Santazilia, E. (2009). "Luzaidetako hizkuntz bariazioa", *FLV* 111, 219-248.
- Sturtevant, E. (1947). *An introduction to linguistic science*, New Haven: Yale University Press.
- Tagliamonte, S. A., (2012). *Variationist Sociolinguistics. Change, Observation, Interpretation*, Oxford: Blackwell.
- Trask, R. L. & R. M. Millar (1996). *Trask's Historical Linguistics*. Berrarg. [2007], London: Hodder Arnold.
- Trudgil, P. (1974, 1983). *Sociolinguistics*. Harmondsworth: Penguin.
- Unamuno, L. (2010). "Adinaren araberrako bariazioa Gizaburuagako hizkerari", *Euskalingua*.
- Wang, W. (1976). "Language change". *Annals of the N.Y. Academy of Science* 280, 61-72.
- Zuazo, K. (1998). "Euskalkiak, gaur". *FLV* 78, 191-233.
- (2003). *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Donostia: Elkar.
- (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*, Donostia: Elkar